



BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure jardueran bezeroekin sortzen dugun lotura funtsezkoa izango da. Lehenik eta behin, publizitate digitalari garrantzi handia emango diogu, gure zerbitzuaren oinarria arropa pertsonalizatua dela nabarmenduz.

Halaber, gure komunitatearekin harreman zuzena izateko, kartelak eta flyerrak zabalduko ditugu tokiko osasun zentroetan, fisioterapia kontsultetan, elkarteetan, zahar-etxeetan eta desgaitasunarekin lotutako elkarteetan.

Gainera, azokak, feria inklusiboak, diseinu-ekitaldiak eta tokiko erakusketak izango dira gure lanaren erakusleiho. Bezeroarekin kontaktua errazteko, behar duten pertsonen etxetik etxeko bisita pertsonalizatuak eskainiko dizkiegu. Bezeroak fidelizatzea gure negozioaren epe luzeko arrakastaren oinarrietako bat izango da.

Ondoren, kalitatea bermatuko dugu: ehunak bezero bakoitzaren egoerara egokitutako ehunak erabiliko ditugu, erraz janzteko modukoak, arnaskorrak, erraz garbitzekoak eta mugimendu askatasuna emateko diseinatuak. Bezeroa gure markarekin gustura eta seguru sentitzeko, salmenta ondorengo zerbitzu pertsonalizatua eskainiko dugu.

Azkenik, gure bezeroak beti entzunak senti daitezen, iritziak eta proposamen pertsonalizatuak jasotzeko kanal aktiboa izango dugu.